

## 60. FITXA Turismo-guneetan merkataritza-jarduera indartzeko laguntzak 2023-NGEU

**Norentzat:** 20.000 biztanletik gorako udalerrriak; Foru-aldundiak, 5.000 eta 20.000 biztanle bitarteko herriei eta 5.000 biztanletik behera dituzten, baina biztanleria flotatzailea kontuan hartuta, kopuru hori gainditzen duten udalerriei zuzendutako proiektuen kasuetan.

**Sarbide-esteka:** <https://www.mincotur.gob.es/PortalAyudas/Fortalecimiento-ZonasTuristicas/Solicitudes/Paginas/Index.aspx>

**Erreferentziazko araudia:** [BOE nº 62 de 14 de marzo de 2023](#)

**Eremuak:** Merkataritza

**Zenbatekoa:** 24.325.884 €

**Aurkezpen-amaiera data:** 2023ko apirilaren 14a

### Laburpena

Laguntza-lerro hauek **14. osagaiari, "Sektore turistikoa modernizatzeko eta lehiakortasuna hobetzeko planari"**, atxikita daude, 4.a inbertsioen atalean: "Lehiakortasunaren eremuko jarduera bereziak; turista asko biltzen diren eremuetan merkataritza-jarduera indartzea".

Laguntzen helburua **merkataritza-zona turistikoetan hobekuntzak txertatzeko** planak eta proiektuak garatzea da, horien artean: **teknologia berrietan** aurreratzeko jarduketak egitea; **energia-eraginkortasuna** hobetzeko irtenbide teknologikoak aplikatzea; **ekologiaren eta hondakinen birziklapena hobetzeko prozesu eraginkorrak** abiaraztea; langileak **prestatzea**; atzerriko bisitariei egokitutako **sinadura digital** integratua ezartzea; eta **irisgarritasuna eta mugikortasuna hobetzeko** espazio publikoak egokitzea.

Toki-erakunde hauek jaso ahal izango dituzte ezarritako laguntzak:

→ **20.000 biztanletik gorako udalerrriak.**

→ Probintziak, **foru-aldundien** bitartez, eta proiektua **5.000 eta 20.000 biztanle arteko** herrietzat denean. Hori zehazteko, kontuan hartuko da diruz lagundu daitezkeen jarduerak garatzen diren mugapeko udalerrietako batez besteko biztanleria. Hainbat udalerriri eragingo dien proiektua udalaz gaindikoa onuradunek proiektu bakar gisa aurkeztu beharko dute eta hura gauzatzeaz eta justifikatzeaz arduratuko dira.

→ **5.000 biztanle baino gutxiago** izan arren, kopuru hori gainditzen duten **udalerriak**, beren **biztanleria flotatzailea** kontuan hartuta (leku batetik bestera bidaiatzen duten biztanleria, une jakin batean udalerrri horretan dagoena, bertan bizitzen daramaten denbora edozein dela ere, baldin eta hori bere ohiko bizilekua ez bada). Baldintza hori betetzeko, honako udal-zerbitzu hauetako batean gutxienez % 100eko igoera izan dela egiaztatu behar da:

- Zabor-bilketako tona kopurua
- Udal kontsumo elektrikoko fakturazioa
- Udalerriko ur-kontsumoaren fakturazioa

Toki-erakundeek irizpide hauetako bat bete beharko dute, gutxienez, deialdi honen ondorioetarako **“merkataritza-zona turistikotzat”** jotzeko eta, beraz, onuradun posibletzat hartzeko:

- Gutxienez, urtean, 25.000 gaualdi izatea.
- Etxebizitzen % 30 baino gehiago bigarren bizilekua izatea.
- Gizarte Segurantzari, EJSN 45., 46. eta 47. atalen arabera, afiliatuta dauden langileen ehunekoa afiliatu guztien % 7tik gorakoa izatea.

## Gastuetarako aldi hautagarria

**2023ko urtarrilaren 1etik 2024ko ekainaren 30era** bitartean sortutako eta ordaindutako gastuak finantzatu ahal izango dira.

Kanpoan geratuko dira eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako amaituta dauden proiektuak.

## Laguntzen zenbatekoa eta mota

**Egin beharreko gutxieneko inbertsioa** biztanle-kopuruaren araberakoa izango da:

- 300.000 biztanletik gorako udalerriek: 1.000.000 euroko gutxieneko inbertsioa.
- 100.000 eta 300.000 biztanle arteko udalerriek: 500.000 euroko gutxieneko inbertsioa.
- 100.000 biztanletik beherako udalerriek: 200.000 euroko gutxieneko inbertsioa.

Emango den laguntza finantzagarritzat jo den proiektuaren aurrekontuaren **% 80koa**, gehienez, izango da, eta dirulaguntza ez da **2.000.000 eurotik** gorakoa izango.

## Diruz lagun daitezkeen kontzeptuak

Onuradun izan daitezkeenek laguntza-eskaera bakarra aurkeztu beharko dute, urteka banakatu ahal izango dena, eta jarraian adierazitako gastu-kategoria bat edo gehiago bildu ditzakeena:

- **Bide publikoko inbertsioak**, bide publikoen egokitzapen funtzionalerako, hobekuntzarako eta modernizaziorako, eta, ondorioz, erabilera turistiko eta komertzialen integrazioa hobetzeko, hala nola:
  - Espaloiak zabaltzea.
  - Apaintzea, txukuntzea, kontserbatzea, zaharberritzea eta lorategiak jartzea.
  - Seinale komertzial eta turistiko adimendunak.
  - Irigarritasuna hobetzeko, hirigintza-oztopoak kentzeko eta oinezkoen ibilerraztasuna hobetzeko instalazioak.

- Mota guztietako ibilgailuentzako edozein aparkaleku-plaza hornitzea merkataritza-guneen inguruan.
  - Banaketa eta hornidura eremu logistikoak sortzea, zamalanak eta alderantzizko logistikak eragindako arazoak arintzeko.
  - Mugikortasuna kudeatzeko instalazioak, irisgarritasuna hobetzeko seinaleak barne.
  - Hiri-altzariak hobetzea: eserlekuak, kontsumo txikiko argiteria publikoa, babes-elementuak, paperontziak eta hondakin-edukiontzia, besteak beste.
- Era berean, egin ahal izango dira diruz lagundu daitezkeen jarduerak higiezin batean, baldin eta toki-erakunde batek horretarako behar diren eskubideak baditu.
- **Merkataritza-sektorearen digitalizazioan** eragina duten jarduerak:
- Intranet gisako komunikazio eta kudeaketa sistema elektronikoak sortzea, bazkideen artean edo haien intereseko beste eragile batzuekin informazioa eta ezagutzak trukatzeko, edo elkarrekin sustapen-ekintzak edo ekitaldi antolatuzeko.
  - Wi-Fi sareak ezartzea, bezeroaren esperientzia hobetzeko eta elkarri onura dakarkioten beste sektore batzuekin sinergiak sortzeko.
  - Merkataritza-establezimenduaren barne-kudeaketa hobetzera eta turismo-salmentak hobetzera bideratutako teknologia berrietan inbertitzea.
  - Erosketetarako turismo-zonak bultzatzeko estrategia digitalak, merkataritza-sustapenerako multimedia-edukiak eta app-ak sortzea eta sortutako tresnen bidez merkataritza-eskaintza zabaltzea, besteak beste.
  - Nazioko eta atzerriko bezeroen arreta, harremana eta ezagutza hobetzea, baita haien fidelizazioa sustatzea ere, teknologia berriak eta analitika aurreratuko teknikak erabiliz.
  - Web-ingurunea berriz diseinatzea, bezeroaren erosketa-esperientzia hobetzeko.
  - Publizitatea eta presentzia, turistak erabiltzen dituen kanal edo euskarri digitaletan, bezeroen trafikoa eta fidelizazioa areagotzen laguntzeko.
  - Merkataritza arloko elkarte eta ETEentzako beren mugapeko diagnostiko-tresnak sortzea, arazo espezifikoak konpontzearekin, lokal berri bat irekitzearekin, belaunaldi-erreleboarekin, administrazio-izapideekin eta negozioaren bideragarritasun-planekin lotutako eragiketetan laguntzeko, besteak beste.
- **Jasangarritasunarekin eta ekonomia zirkularrarekin** lotutako gastuak.
- Saltokiek eta kontsumitzaileek beren establezimenduetan sargaien kontsumoa murrizteko inbertsioak, eta horien ordez ingurumena gehiago errespetatzen duten beste aukera batzuk jartzea.
  - Merkataritza-establezimenduetako energia-kontsumoaren eta bestelako horniduren eraginkortasuna hobetzeko soluzio teknologikoak eta inbertsioak: oinarri teknologikoa duten zein ekoefizienteak diren prozesuak ezartzea edo hondakinak (biohondakinak, papera, plastikoa, beira, etab.) behar bezala bereizteko prozesuak, ondoren birziklatu eta balioesteko.
  - Jasangarritasuna, klima-aldaketarako egokitzapena eta eraginkortasuna areagotzera bideratutako beste jarduera eta irtenbide batzuk: ekonomia erresiliente eta karbono gutxiko baterantz aurrera egingo dutenak eta hondakinen sorrera murriztea ekarriko dutenak, horien artean, zona turistikoetan kokaturiko merkataritza guneetan produktuen berrerabiltzea, ekonomia zirkularra ezartzea eta zero zaborra sustatzea.
  - Klima-aldaketara egokitzeko jarduerak, hala nola espazio publikoetan esku hartzea, merkataritza-guneetako hiriko bero-uharte efektua arintzeko.

→ **Prestakuntza** gastuak merkataritza-sektoreko langile eta autonomoei zuzenduriko arlo hauetan: hizkuntzak, trebetasunak, tresna teknologikoen erabilera eta kudeaketa, marketin digitala, datuen ustiapena eta analisia, merkataritza sektoreko negozio-ereduan ekonomia zirkularra, birziklatzea eta berrerabiltzea sustatzeko estrategien sentsibilizazioa.

- Jardunaldiak egiteko espazioa alokatzea.
- Jardunaldietarako beharrezkoak diren altzariak eta ekipoak alokatzea.
- Horiek egiteko hirugarren bat azpikontratatzeko, baldin eta azpikontratatuak jarduerak ez badu gainditzen diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren % 80, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 29. artikuluan ezarritakoaren arabera. Kontzeptu horretatik kanpo geratzen da onuradunak diruz lagundutako jarduera bere kabuz egiteko egin behar dituen gastuen kontratazioa. Kasu horietan, jarduera horiek ematen dituzten langileek sinatutako ordutegi-parteak erantsi beharko ditu onuradunak.
- Hizlarien ordainsariak.
- Ikastaroen diseinu pedagogikoa, tutoretza eta ikastaroak ematea, bai online formatuan, bai aurrez aurre.
- Merkataritza-sektoreko langileentzako eta autonomoentzako prestakuntza gauzatzeko ezinbesteko materialak.

Inola ere ez dira diruz lagunduko bertaratuentzako ekipoak edo materialak, *merchandising*-ari lotutako gastuak, ezta tailerrak edo jardunaldiak egin aurretik sektoreak dituen beharrak ezagutzeko gastu egozgarriak ere.

## Ebaluazio-irizpideak

- Aurkeztutako proposamenaren edo jarduketaren **kalitate teknikoa** (0-25 puntu):
  - Proposamena hautemandako arazo edota beharizanetara egokitzeko gaitasuna (0-10 puntu).
  - Turismoaren erakargarritasuna hobetzeko eta inguruko turisten eta bisitarien profil berriak erakartzeko gaitasuna (0-10 puntu).
  - Inguruko turistei eta bisitariari emandako zerbitzuak hobetzeko gaitasuna, bai saltokietan, bai merkataritza-guneetan eta inguruetan (0-5 puntu)
- Udalerriko **merkataritza-eskaintza dinamizatzeko, eguneratzeko eta aberasteko** proiektuaren gaitasuna (0-15 puntu).
- Proiektuak **ingurumen-kalitatea, energia-eraginkortasuna eta ekonomia zirkularra hobetzen** laguntzea (0-25 puntu):
  - Saltokiek eta kontsumitzaileek beren establezimenduetan sargaien kontsumoa murrizteko eta horien ordean ingurumena gehiago errespetatzen duten beste aukera batzuk jartzeko inbertsioak egitea (0-3 puntu).
  - Produktua banatzeko, entregatzeko eta itzultzeko eragiketak optimizatzea, kostuak eta ingurumen-inpaktua gutxituko dituzten teknologia eta ekosistema kolaboratibo berriak ezarriz, azken miliari arreta berezia eskainiz (0-3 puntu).
  - Merkataritza-establezimenduetan soluzio teknologikoak inplementatzea, birziklatzeko eta hondakinak berrerabiltzeko oinarri teknologikoa duten prozesuak ekoefizienteak ezartzea (0-3 puntu).
  - Energia-kontsumoaren eraginkortasuna hobetzeko soluzio teknologikoak eta inbertsioak (0-10 puntu).

- Jasangarritasuna eta eraginkortasuna areagotzera bideratutako beste jarduera eta soluzio batzuk, karbono gutxiko ekonomia baterantz aurrera egitea, hondakinen sorrera murriztea, ekonomia zirkularra ezartzea eta zero zabor sortzea ekarriko dutenak (0-3 puntu).
- Aurreko 5 irizpideetan gehienezko puntuazioa lortzeagatik: 25 puntu.
- **Onuradun zuzenak diren saltokien kopurua eta onuradunaren mugapeko merkataritza-ehunaren gainean ordezkatzeko duten ehunekoa** (aurreikusitako eragina) (0-15 puntu).
- Aurkeztutako proiektuaren **berrikuntza-maila** eta izaera erakuslea (0-10 puntu).
- Udalerri gairik proiektuak, **hainbat udalerri** hartzen dituztenak eta trakzio-izaeragatik lurraldean eragin handiagoa dutenak, trakzio-izaera dutenak (0-10 puntu).
  - Proiektuak gutxienez bi udalerriko irismena badu: 3 puntu.
  - Proiektuak hiru eta bost udalerri arteko irismena badu: 4 puntu.
  - Proiektuak sei eta zortzi udalerri artean hartzen baditu: 6 puntu.
  - Proiektuak bederatzi eta hamar udalerri artean hartzen baditu: 8 puntu.
  - Proiektuak hamar udalerri baino gehiago hartzen baditu: 10 puntu.

Proiektuek 50 puntu lortu beharko dituzte gutxienez.

## Intereseko beste alderdi batzuk

**Onuradunak proiektuaren % 100 arte azpikontratatu ahal izango du.** Hirugarrenekin hitzartutako jarduerak dirulaguntzaren zenbatekoaren % 20 gainditzen badu eta zenbateko hori 60.000 eurotik gorakoa bada, onuradunak kontratazio hori egiteko alde aurreko baimena eskatu beharko dio laguntza ematen duen organoari, eta baimena emantzat ulertuko da, baldin eta dirulaguntza emateko ebazpenean onuraduntzat jotzen bada.

Dirulaguntza emateko ebazpena igorrita badago, dirulaguntza ematen duen organoari eskatu beharko zaio azpikontratazio-baimena, eta hark hamar egun balioduneko epean ebatziko du. Epe hori igaro eta berariazko ebazpenik eman ez bada, baimena ezetsi egin dela ulertuko da.

Eman beharreko laguntzaren intentsitatea diruz lagun daitekeen proiektuaren aurrekontuaren % 80koa denez, eskatzaileak baterako finantzaketa-konpromisoaren erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du, proiektuaren aurrekontu finantzarri osoaren gaineko ehunekoa nor bere gain hartzen duen zehaztuz.

Laguntza lortzeko eskabideak Merkataritza Politikako Zuzendaritza Nagusira bidaliko dira, hori baita prozedura agindu eta bideratzeko eskumena duen organoa. Zuzendaritza horren eskabide-inprimakiak Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioaren laguntza-atarian egongo dira eskuragarri, bete eta aurkezteko. Bertan, beharrezkoak diren laguntza-baliabideak izango dira.

<https://www.mincotur.gob.es/PortalAyudas/Fortalecimiento-ZonasTuristicas/Solicitudes/Paginas/Index.aspx>